

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Margaritako el fontano eta el coteado finketako zuhaitzak moztea, Vitoria-Gasteiz udalerrian

Espediente-zenbakia: AO-A-2019-0181

Eskatzaileak: Cipriana Ortiz de Latierro Sáez de Cortázar eta Josefa Ortiz de Latierro Sáez de Cortázar.

Vitoria-Gasteiz udalerrian, 7. poligonoko 145, 146 eta 149 zenbakiko partzeletan kokatutako makaldiak mozteari ekingo zaio. Mozketa hori Zadorra ibaiaren ezker aldean egingo da, eta 4,27 hektareako azalerari eragingo dio.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hiru egun balioduneko epean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita; eta, horrenbestez, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzakete epe horren barruan, bulego honetan (Forondako Atea kalea, 9-11; 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 22a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGIRRE ORCAJO